

Itsaso guztiak




ARITZ GALARRAGA

Predrag Matvejevic idazleak dio katalan bat ezagutu zuela Alexandrian, lanbidez erlojugilea, zeinak helburu zuen suntsitutako liburutegiaren katalogoa berregitea, Antzinaroko handiena, eskuragarri dauden datuak urriak izan arren. Kexu zen katalana bere ama hizkuntza galtzen ari zelako, eta galera hori nolabait konpentsatzeko beharra sentitzen zuen: “hegoaldeko eszentrikoak iparraldeko eszentrikoengandik diferenteak dira. Arrazoa ez da soilik klima desberdintasuna. Mediterraneoan, mirariak ere desberdinak dira”, ixten du partea Matvejevicek.

Idazle kroaziarrak *Mediterranski brevijar* liburuan egiten duen ahalegina ere, xumeagoa, baina ez da hain ezberdina: Mediterraneo itsasoa agortzea, liburu bakarrean biltzea itsaso horrek esan nahi duena. Beste batzuk saiatu izan dira aurretik, Fernand Braudel historialari frantsesa, adibidez, *La Méditerranée et le monde méditerranéen à l'époque de Philippe II* lanarekin; baina ez, Claudio Magrisen hitzak erabiltzeko, Ulises garaikide baten gisan, mundua irakurriz, errealitatea, jendearen keinu-doinuak, anbar harriaren komertzioa, judu sefardien peleginazioa, mahatsondoaren zabalkuntza, ibaien bidea, kaietako soken usaina, itsasoaren iluntasunaren tonu aniztasuna. Helburu bakarrarekin guztia: erantzuten saiatzea zer den Mediterraneo. Olio eta ardoa, garia eta espeziak, jakinduria eta ezagutza, armonia, logika, poetika, eta kaosa, gorrotoa, biolentzia, Atenas eta Esparta, Erroma eta barbaroak, Ekialdea eta Mendebaldea, kristautasuna, judaismoa, islama, likido amniotiko originala, gure zibilizazioaren sehaska: Mediterraneoan sortu zen Europa.

Itsaso guztiek itsaso berdina dirudite, itsaso bakarra, baina egiazki guztiak dira diferente. Kantauri itsasoan jaio baina Mediterraneoan bizitzen urteak daramatzen batek antzeko zerbait esango lizueke. ●



Presoak

Yvan Colonnaren zigorra etetea erabaki du Frantziako Gobernuak, Colonnaren abokatuaren eskariari erantzunez. “Osasun arrazoiak” argudiatu dituzte. Egunotan Korsikan istilu larriak eragin ditu espetxean larri zauritutako presoaren aferak eta korsikar abertzaleen eskaerak hauspotu ditu.

Euskal presoak

Gorka Palacios absolutu du Espainiako Auzitegiak. Bi atxilotuk torturapean egindako adierazpenak ziren Palaciosen kontrako frogak bakarrik eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia berriaren arabera, adierazpen horiek ez dira kontuan hartu behar.

Etxe kaleratzea

Martxoaren 16rako kaleratze agindua zuen Donostiako Ategorrieta kalean bizi zen bikote batek. Etxebizitza Azora funts putrearen jabetzako izatera pasa ostean alokairua igo zieten, eta ezin izan zioten igoerari aurre egin. Etxe parean herritarrak mobilizatu ziren arren, kaleratzea gauzatu zuen Ertzaintzak.